

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea Aguraingo "Curtidos Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programari

Alkatearen 2019ko otsailaren 8ko Dekretu baten bidez, hasierako onespena eman zitzaien Aguraingo "Curtidos-Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programari, Aguraingo Udalak eskatuta.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hogeiei egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edonork aukera izan dezan egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko, bat etorritik Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 156. artikuluan xedatutakoarekin, programa horretan jasotako funtsezko elementu hauekin:

Urbanizatzeko jarduketa programa, agiri hauek osatua:

1. Xedea eta eremua.

2. Hirigintza edukia:

– Egikaritze unitatearen azalera: 22.590 metro koadro.

– 38.350 metro koadroko eraikuntza aprobeixamendua, bizitegitarako erabilera duen sabaia, eta 1.100 metro koadro duen hirugarren sektoreko erabilera duen sabaia.

– Etxebizitza kopurua, gehienez: 348 unitate.

3. Hirigintzako eduki teknikoa.

4. Planoak.

Urbanizatzeko jarduketa programaren alderdi nagusiak:

– Ekimena eta sustapena: Aguraingo Udala.

– Urbanizatzeko jarduketa programaren eremua: Aguraingo udalerriko "Curtidos Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea.

– Aurreikusitako jarduketa erregimena: pribatua.

– Jarduketa sistema: kontzertazioa.

– Eragiten dion jarduketa integratua: Aguraingo udalerriko "Curtidos Harresi" UE 49-1 egikaritze unitatea.

– Epeak:

• Hitzarmena sinatzea: bi hilabete urbanizatzeko jarduketa plana onartzen denetik.

• Hitzarmen batzarraren eraketa: bi hilabete hitzarmena sinatzen denetik.

• Birpartzelazio proiektua idaztea eta hari hasierako onespena ematea: lau hilabete hitzarmen batzordea eratzen denetik aurrera.

• Urbanizazio lanak egitea: hamabi hilabete baimena ematen denetik.

• Emaitzazko orubeak eraikitzea: hirurogeita bi hilabete birpartzelazio proiektua behin betiko onesten denetik.

- Udalari aprobetxamenduak lagatzea: birpartzelazio proiektuak zehaztuko ditu.
- Urbanizazioaren aurrekontua, guztira: 1.731.167,96 euro

Agurain, 2019ko otsailaren 8a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR